

IZAERA OROKORREKO KIROL ENTITATEEI EDO/ETA KLUBEI DIRULAGUNTZA EMOTeko ARAUDIA.

1.- HELBURUA

Oinarri honeen helburua, kirola bultzatzeko ekintza arruntaren garapenerako eta bere proiektuak, Bermeoko Udalak, Kirol Udal Patronatuaren bitartez, lagungarri kontsideratzen dauzan lukuru gabeko izaera daukien Kirol Entitate, edota Klubek, udal dirulaguntzak eskuratzeko erregulazioa da.

Laguntza honeek Udal aurrekontuek izten daben neurrian, urtero banatuko dira eta burututako ekintza arruntan arabera.

2.- ONURADUNAK

Oinarri honeen bidez erregulatzen diran dirulaguntzak, ondorengo baldintzak betetzen dabezan kirol entitate edota klubek ahal izango dabez eskatu:

- Indarreango legealdiaren arabera eratuta egotea eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Elkarte eta Entitate erregistroan inskribaturik egotea.
- Identifikazio fiskaleko kodea eukitzea eta egunean egotea betebeharrak fiskaletan.
- Bermeoko udalerrian eukitzea bere egoitza soziala.
- Klub, edota, Entitate eskatzailearen ekipoko jokalariek ere ezin izango dau kirola egitearren diru kopururik kobratu, udalerrian mailan kirol promoziorako ikastaroak egiten dabezanek izan ezik.

3.- ESKARIAK ETA AURKEZTEKO EPEAK

Dirulaguntza eskariak Bermeoko Kirol Udal Patronatuan, beti dirulaguntza eskuratu nahi dan urtearen aurreko azaroaren 15a baino lehenago egin behar dira ondoren aipatzen dan dokumentazioa ekarri beharko dalarik.

- Klubak desinteresatuki udalerrientzat egin daitezkan jarduketak biren egitaraua.
- Urtealdian klubeko edo kirol entitateko jagokoen federakuntzak luzaturiko kirolari federatuen zerrenda. Kadeteak, jubenilak eta seniorrak.

- Jagokon federakuntzak luzaturiko indarreango lizentzia daukien entrenatzaileen zerrenda eta heuren kategoría.
- Parte hartu dauan txapelketak edo lehiaketak, sailkapena eta lortutako emaitzak.
- Bermeoko Kirol Udal Patronatuagaz kolaborazioz edo independenteki antolatu dabezan izaera arrunteko jarduketak.
- Informe ekonomikoa gastu sarreren deskripzio zehatzagaz, bai egindakoak, bai hurrengo denboraldirako aurrikusitakoak ere.
- Hurrengo denboraldirako egitaraua, ekipo kopurua eta parte hartuko daben kategoría. Aurreko denboraldiragaz gonbaratuz, aldaketa garrantzitsuenak.
- Eskola kiroleko ekintzen garapenerako Eskola zentruetak kolaborazioak.

Eskatutako dokumentazioa aurkeztu ezik, ez da gauzatuko dirulaguntzen kontzesioa. Halaber, datuen izkutapena, edota, faltsuzkoak izateak, dirulaguntza horrek eskuratzeko eskubidea galtzea suposatuko dau.

Epe hau amaitu ondoren, 15 egun naturaleko aldia egongo da detektaturiko akatsak zuzentzeko, ala faltatu dan dokumentazioa aurkezteko.

4.- DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA EZARTEKO BAREMOAK.

Ekintza arrunta subentzionatzeko destinatzen dan kantitatea, kirol klubei adjudikatzen diran puntuen guztirakoagaz zatikatuko da (ondoren zehazten diran balorazio adierazleen arabera) honela, puntu baten balore ekonomikoa kalkulatu. Balore ekonomiko honek, kirol klubak lortutako puntuez biderkatuz determinatuko dau dirulaguntzaren zenbatekoa.

Balorazio adierazleak ondorengoak izango dira:

1.- Ekipo federatuengaitik:

Lurralde esparruko txapelketan	10
Autonomi esparruko txapelketan	20
Estatu mailako txapelketan	30

2.- Federatutako kirolariagatik:

Banakako kirolean	02
Ekipoko kirolean	01
Euskadiko selekzioan	01
Kirolariagatik Euskadiko selekzioa Baino goragoan	02

3.- Entrenatzaileagatik:

Oinarrizko entrenatzailea (monitorea)	03
Maila ertaineko entrenatzailea	06
Estatu mailako entrenatzailea	10

4.- Partaidetza aktiborako populazioa guztiari zuzendutako kirol ekintzak antolatzeagatik **20**

5.- Eskolako kiroleko kirol ekintzen garapenerako zentru eskolarrekaz kolaboratzeagatik: **10**

6.- Kirol sustapeneko ekintzetan Kirol Udal Patronatuagaz kolaboratzeagatik **10**

7.- Udalerrri honetan behar diran instalakuntza ezagaitik Bermeotik kanpo konpetizioetan, edota, entrenamendu erregularretan parte hartzeagaitik **05**

8.- Klubak gestionaturiko lokal propioagaitik **05**

9.- Kiroldegia erabiltzen behartuta dauden kirol taldeak parte hartzaileen kopuruko **%25a**.

5.- ORDAINKETAK

Emondako dirulaguntzaren ordainketa honela egingo da:

- Emondako kantitatearen %50a, aurrerapen gisan, urteko lehenengo lauhilabetean, beti ere, Patronatuko kutxentzat posible izan ezker.

- Gainerakoa, emondako dirulaguntzaren guztirakoaren gehiengo %50erainokoa, beti azaroaren 30a baino lehenago, txostena eta Kirol Udal

Patronatuak onartutako gastuen frogagirikaz batera aurkeztu ondoren ordainduko da.

- Edozein zirkunstantziagaitik aurrikusitako ekintzak burutuko ez balira, edota, pentsatu zan baino gitxiago gastatu izan balitz, 60 eguneko epe barruan, jagokon kantitatea Patronatuari itzuli beharko jako.